

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko ekainaren 10etik ekainaren 16rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/06/16

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 31koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko garbiketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunen hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzen duena (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002115012003). **2857e xedapena- 4 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/12

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/587/2023 Agindua, ekainaren 9koa, zeinaren bidez onesten baita 718 eredu, «Aberastasun handien elkartasunezko aldi baterako zerga», eta hura aurkezteko tokia, modua eta epeak, baldintzak eta prozedura zehazten baitira. **13800 xedapena- 8 or.**

2023/06/14

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Merkataritza-erregistroa. Erregelamendua.** 442/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuak onetsitako Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua eta zeinaren bidez transposizioz jasotzen baita partzialki 2017/1132 (EB) Zuzentaraua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1151 (EB) Zuzentaraua, 2019ko ekainaren 20koa, sozietateen zuzenbidearen esparruan tresna eta prozesu digitalak erabiltzeari dagokionez. **14043 xedapena- 8 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zerga-salbuespenak. Zerga bereziak. Erregelamendua.** 443/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, zeinaren bidez onesten baita Europar Batasuneko estatu kideetako indar armatuei dagozkien zerga-salbuespenak garatzen dituen eta segurtasun- eta defentsa-politika erkidearen esparruan defentsa-ahalegin baten eraginpean dauden estatuei dagozkien zerga-salbuespenak garatzen dituen erregelamendua eta hura aplikatzeko prozedura bat ezartzen baita, eta zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartutako Zerga Berezien Erregelamendua. **14044 xedapena- 10 or.**

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Zerga-onurak konpentsatzea.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 9koa, Tokiko eta Erkidegoko Finantzaketako Idazkaritza Nagusiarena, 2023ko ekitaldirako landa-ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespena konpentsatzeko prozedura arautzen duena, maiatzaren 11ko 4/2023 Errege Lege Dekretuaren 12. artikuluan ezarria. **14045 xedapena- 4 or.**
- **PRESIDENTENTZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Energia elektrikoa.** 444/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, kontsumitzaile elektointentsiboen Estatutua arautzen duen abenduaren 15eko 1106/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. **14046 xedapena- 19 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Ingurumena.** 445/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I., II. eta III. eranskinak aldatzen dituen. **14047 xedapena- 21 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Energia elektrikoa.** 446/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken horren bidez, energia elektrikoaren kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioak kalkulatzeko metodologia ezartzen da, baita haiek kontratatzeko araubide juridikoa ere, energia elektrikoaren kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioak indexatzeko, epe barruko seinaleei begira eta hegakortasuna murrizteko. **14048 xedapena- 21 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Gas naturala. Prezioak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 7koa, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez finkatzen baitira gas naturalaren 2022. urteko prezioak penintsulaz kanpoko lurraldeetan kokatutako multzo sortzaileen ekitaldi horretako likidazioan aplikatzeko. **14049 xedapena- 10 or.**
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Dirulaguntzak.** 447/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, 65 urte edo gehiagoko pertsonak zinemara joatea sustatzeko zinema-aretoei zuzeneko diru-laguntzak ematea arautzen duena. **14050 xedapena- 11 or.**
- **KONTSUMO MINISTERIOA. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak.** 448/2023 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarten Estatuko Erregistroaren araudia onesten duena. **14051 xedapena- 22 or.**

2023/06/15

- **DEFENTSA MINISTERIOA. Eskumenak eskuordetzea. Antolaketa.** DEF/609/2023 Agindua, maiatzaren 29koa, honako hauek aldatzen dituen: otsailaren 10eko DEF/244/2014 Agindua, Defentsa Ministerioaren esparruan kontratuen, akordio teknikoen eta kostu bidezko beste negozio juridiko batzuen arloko eskumenak eskuordetzen dituen; eta otsailaren 8ko DEF/194/2021 Agindua, kontratazio

zentralizatua arautzen duena eta Kontratazio Batzordeen osaera eta eskumenak ezartzen dituen. **14215 xedapena- 3 or.**

2023/06/16

- **GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI-AGENDA MINISTERIOA. Posta-zerbitzu unibertsala.** TMA/620/2023 Agindua, ekainaren 6koa, ereduak ezarri eta posta-kontribuzioaren eta administrazio-baimen bereziak emateagatiko tasaren likidazioa arautzen dituen. **14343 xedapena- 8 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 12koa, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan 2023. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziei buruzko 2023ko urtarrilaren 24ko Ebazpenean jasotako Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarea. **14344 xedapena- 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/06/13

- **LEHENDAKARITZA.** 5/2023 LEGEA, ekainaren 1ekoa, autokontsumoaren tramitazioa erraztekoa eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzekoa. **2772e xedapena- 4 or.**

2023/06/14

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** 71/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. **2798e xedapena- 2 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/06/14

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa. Onestea autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioei, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako onetsi zuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 9/2023 Foru Dekretuaren aldaketa. **1766E xedapena- 8 or.**

2023/06/16

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa. Arabako Foru Aldundiaren Barneko Informazio Sistema sortzea eta arautzea. **1831E xedapena- 7 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/15

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 241/2023 FORU AGINDUA, ekainaren 12koa, zeinaren bidez onesten baitira, 2022ko urtarilaren 1ean hasitako zergaldietarako, 200 eta 220 ereduak, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrei eta, atzerrian eratuak izanik eta Bizkaian presentzia edukita, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagokiena) autolikidatzeko erabili beharrekoak, eta arautzen baita eredu horiek telematikoki aurkezteko prozedura. **I-727 xedapena- 165 or.**
- **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 74/2023 FORU DEKRETUA, ekainaren 6koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan abeltzaintza arloko kalte-ordain ekonomikoak eskuratzeko sistema ezartzen duena. **I-714 xedapena- 19 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/06/15

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 248/2023 Foru Agindua, ekainaren 6koa, zeinaren bidez onesten baitira, 200, 220, 20G eta 22G ereduak, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrei eta, atzerrian eratuak izanik eta Gipuzkoan presentzia edukita, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagokiena) autolikidatzeko erabili beharrekoak. **04235 xedapena- 270 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2023/06/16

- Batzordearen komunikazioa, EBko taxonomiari buruzko Erregelamenduaren zenbait lege-xedapenen interpretazioari eta aplikazioari buruzkoa, eta finantza-zerbitzuen sektorean iraunkortasunari buruzko informazioa zabaltzeko Erregelamendurekiko estekak. **C 211/1 xedapena - 5 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO